

ARAMA ZAITEZ

7.zenbakia

2015eko otsaila



ARAMAKO BERRIEN BOLETINA

Aurkezpena

Beste urte bat igaro da eta konturatu gabe 7.ale hau aurkezteko unea iritsi zaigu.

Oraingoan ere otsaileko zenbakia edukiz beteta datorkigu: udaleko berriak, aurre hauteskunderi buruzko informazioa, Korrika 19... baina dudarik gabe, zenbaki honetan, gure herrian protagonista den Iker Irribarria zoriondu nahi dugu eta Aramatar guztiak Iker animatzeko, martxoaren 22an, Eibar-ko Astelehena pilotalekuan izango den pelota partidura joateko gonbidapena luzatzen dugu hemendik.

Bukatzeko, Arama Zaitetz aldizkariaren 7.alean aurrera begira jarrita, gure asmoa Aramako gertaerak gertutik jarraitzeaz gain herritarrek beraien txokoa izan dezaten nahiko genuke eta horretarako aldizkarian parte hartzera gonbidatu nahi dizuegu.

Norbaitek aldizkarirako proposamen bat badu, artikuluren bat idatzi nahi badu edo argazki, bidai, ikastaro, afizio edo hobberen baten inguruko informazioa badu edo besterik gabe zerbait kontatu nahi badigu jarri dadila gurekin harremantan 943880739 telefonoan edo eli@arama.eus helbidean.

Aldizkarian

Parte

hartzea

Arama Zaitetz aldizkariari formatu aldaketa txiki bat egin diogu eta beste behin ere zure buzoian duzue. Zuen gustokoa izatea espero dugu.

Agenda

OTSAILAK 28	Manifestazioa Donostian arratsaldeko 17:30etan "Oztopen gainetik euskaraz biziko gara"
MARTXOAK 2-7	Bozkatzeko astea
MARTXOAK 8	Emakume eguna
MARTXOAK 22	Eibarko Astelehena pilotalekuan Iker Irribarriaren debuta . Gauean afaria
MARTXOAK 23	Gauerdiko 00:10etan Korrika 19
MARTXOAK 28	Setien "Moko" sagardotegian bazkaria

IRIARTE ERAIKINEAN SOIKETA GELAREN IREKIERA

Aramako Iriarte eraikineko 2.solairuan soinketa aretoa ireki da eta bertako makinak erabili nahi dituenak Aramako udalean ditu eskaera orriak izena emateko.



Ordutegia	Egunero 8:00 – 21:30
Baldintzak	Araman erroldatua 16 urtez gorakoa izatea. Sarbide txartela edukitzea
Kostua	Urtean 60€
Makinak	1 Korrika zinta 4 bizikleta 2 eliptika 1 luzaketa makina

IKER IRRIBARRIA. ARAMAKO EMBAXADORE

Azken aldian, prentsan irakurri eta entzun ahal izan dugun moduan, Arama punta puntan dago goi mailako kirolarien proportzioari dagokionean. Hala nola, futbole, txirrindularitzan, atletismoan, golfetan... urrezko jenerazioa dugu Araman. Eta pilotan, promesa izatetik errealitate izatera pasatu den bizilaguna dugu Iker Irribarria, hain zuzen ere.

Martxoaren 22an egingo du debuta, profesional mailan, Eibarko Astelehena pilotalekuan. Asperekin 3 urteko kontratua sinatu ondoren.



Zorionak beraz, Iker, eta urte askotan izan zaitezela gure enbaxadore Euskal Herri guztian zehar.

Han izango gaittuk, Eibar-en, gure bizilagun baten arrakastarekin harro.

Eta hau hasi besterik ez da egin. Gainerako enbaxadoreoi ere, aurrera lanean, laister emango dugu eta zuon berri.

ZORIONAK IKER!!

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
2	3	4	5 O Ilbetea	6	7	8
9	10	11	12	13	14 02:40 Ilgora	15
16	17	18	19	20 Ilberria	21	22
23/30	24/31	25	26 15:32 Ilbehera	27	28	29 Ilberria

EGUN EGOKIENAK LAN BAKOITZERAKO:

Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarrun, ■

Sustrala: azenario, atbi, erremolatxa, patata, tipula... ■

Lorea: lorea, girasola, brokuli... ■

Ostoa: letxuga, pomua, eskatola, aza, espinaka ■

EGUNORDU DESEGOKIAK: atseatera ■

GREEN
Babespean / Negutegian: Letxuga, pomua, berenjena, tomatea, piperra
Aire librean: Patata, pomua, erremolatxa gorria, azenarioa, perrexila, atbia

LANDATU
Babespean / Negutegian: Letxuga, azelga, tipulina, tomatea
Aire librean: Tipulina, tipula, marrubia, porrua, letxuga, apioa, mihitua

Beste lanak:

Izotzarekin sensiblerik diren landareak kimatu eta ongarritu edo lurberritu; hortentsiak, geraniok, fuchsia...

Udaberri eta udarako garaiko loreak babesean erain.

Ongarri berdea badugu, garai onta da moztu eta lumari nahasteko.

Udaberri -udara gonaian loretan egongo diren erreboilak aldatu; glaciolo, dalia, lilium, kalak, begoniak etab.

Sagan-ondoan adarkeko txertoa egin, izendia mugitzeaz dagoen momentuan.

Udaberria atarian dago, hazitegiak prest egon behar dira, udaberriko landaretxoak izan nahi ezkeru.

Lumari berotzen laguntzeko, kendu alkitxatuak, bitartean aprobetxatu azpiko bareak kentzeko, badakizue zerbat gustatzen zaizkien landare txikiak hauei.

Zelaietan kareea botatu(udaberrian eta udazkenean egin beharreneko lana).

Zelaietan hazia erain.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

EREN
Babespean/ Negutegian: Lexuga, porua, bererjena, tomatea, piparra
Aire librean: Patata, porua, erremolaba gorria, azenarioa, peirrexila, arbia

LANDATI
Babespean/ Negutegian: Laxuga, azelga, tipulina, tomatea
Aire librean: Tipulina, tipula, manubia, porua, lexuga, apioa, mihluta

Egun egokienak lan bakoitzerako:

Fruitua: tomatea, kalabaza piper, babarun, ■

Sustratia: azenario, arbi, erremolaba, patata, tipula. ■

Lorea: lorea, girsola, brokuli. ■

Ostoa: lexuga, porua, eskarola, aza, espinake ■

EGUNORDU DESEGOKIAK: atsedena ■

Beste lanak:

Izotz arrisku handiena pasatuta, hilaren bukaera aldean zitiirikak aldatu

Udaberri -udara garaiari lotaritan egongo diren erreboilak aldatu: gladiolo, dalia, liliurua, kalak, begonnik etab.

Azeri buztan eta osin urekin tratamendua egin. Lanbareak indartsuago egongo dira, gritz desberdinak eta garaia horetan zerbatik landanetan ohikoak diren zarriz izurriteak saihestuz.

Temperatura igotzen doa. Zairdu negutegien aireazioa eta landanetxoan ureztapena.

Berretzen udaberriko landaketarako konpostatutako simurra zabalitzeko une egokia da.

Lanadiketa egiten arikoan ez sartu dena batera, saiatu pisikarako egiten, horma elkoizpena ere tartekatuta izango da.

Neguko landareak loratzen direnean, hazizki, jeso eta garde humerago sasoian erabiltzeko.

KORRIKA 19**Badator Korrika 19!**

Euskararen aldeko lasterketa erraldoia **martxoaren 19an, Urepelen hasi eta martxoaren 29an Bilbon bukatuko da.**

2.161 kilometro egingo ditu Korrikaren 19. edizioak, lurraldez lurralde, bailaraz bailara, herriz herri, kilometroz kilometro, eskuz esku.

Aramatik martxoaren 23an gauerdiko 00:10ak aldera pasako da Korrika 19 beraz nahi duenak Toki Alai tabernan afaria egingo da gero denok elkarrekin Korrika-ra joateko.

Bestalde, Korrika19k eta AEK-k Durangoko Azoka omendu nahi du. Herri honek auzolanean eta elkarlanean lorpen haundiak egin ditu. Ia 50 urteko ibilbidea dauka, 2015ean, 19.Korrika burutuko den urtean, alegia, beteko bait du mende erdia.

Hamaika egunez Euskal Herria zeharkatuko duen euskararen aldeko lasterketaren informazio guztia sarean jarri du AEK, www.korrika.eus web gunean.

GOIERRIKO IBILBIDEA:**Martxoak 22, igandea**

- Legorreta.....23:44

Martxoak 23, astelehena

- | | |
|----------------------------|-----------------------------|
| • Itsasondo.....00:10 | • Zerain.....2:47 |
| • Arama (indust.)....00:16 | • Mutiloa.....3:00 |
| • Ordizia.....00:23 | • Ormaiztegi.....3:19 |
| • Beasain.....00:51 | • Gabiria (Alzibar)....3:29 |
| • Lazkao.....1:16 | • Ezkio-Itsaso.....3:45 |
| • Olaberria.....1:36 | • Zumarraga.....4:04 |
| • Idiazabal.....1:55 | • Urretxu.....4:24 |
| • Segura.....2:27 | • Legazpi.....4:55 |
| | • Udana.....5:45 |

ERREZETA
IÑAUTERIETAKO TORRIJAK



Anne Otegi, Aramako Toki Alai
Jatetxea

OSAGIAK

- 1l. Esne
- Kanela makil bat
- 100g azukre
- Aurreko eguneko ogia
- Arraultzak
- Irina
- Ekilore olioa

PRESTAKETA

Ipini eltze batean esnea, kanela eta azukrea egosten. Irakin bat eman bezain pronto itzali.

Moztu ogia xafra potolotan. Ipini ontzi baxu batean eta estali esnearekin. Hobe esnea epela bada.

Ogia ongi bustia dagoenean, olio berotzen jarri, arraultza irabiatu eta irina plater batean jarri. Pasa ogi xafrak irinetik, arraultzatik eta azkenik frijitu olio berotan.

Utzi torrija paper gainean soberako olio bota dezan eta estali azukrez eta kanela hautsez zerbitzatzerakoan.

Epelak beti hobeak daude. Onegin!!

LEHIAKETA

Goitik behera eta ezker eskuin, hitz bat eta bera.

Definizioak:

1.Laburrak. 2.Oraindik. 3.Joan..., XVII.mendeko euskal idazle zuberotarra. 4.Ipar Euskal Herrian, elikagaia. 5.Senideak. 6.Errusiako estepako herri nomada.

	1	2	3	4	5	6
1						
2						
3						
4						
5						
6						

Aurreko boletinean parte hartu dutenen artean zozketa egin dugu eta badugu irabazlea:

EIDER IZAGIRRE

ZORIONAK!! Eta mila esker parte hartu duzuen guztioi!!

Udaletxeko buzoian sartu zure erantzuna.

Toki Alai jatetxean 2 lagunentzako asteburuko menu baten zozketan sartuko zara.

Zorte on.